



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

IVAP

1. EVETUk hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko laguntzak Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLV. (45) Ikastaroa (2019-2020) egiteko matrikula-bekak	2
2. Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko	4
3. 2019-2020ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia	6
4. Euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako "Jesús María Leizaola 2019" saria	8
5. Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak (toki administrazioa).....	10
6. Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak	12



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EVETUk hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko laguntzak Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLV. (45) Ikastaroa (2019-2020) egiteko matrikula-bekak

2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko ekainaren 4koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLV (45) Ikastaroa (2019-2020)» egiteko bost matrikula ordaintzeko bost beka iragartzen baitira. Aipatutako ikastaroa IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen mendeko LHIEE Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatu du. (EHAA 139. zk., 2018ko uztailaren 19).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: EBAZPENA, 2019ko ekainaren 4koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena. (EHAA 111. zk., 2019ko ekainaren 13).

Esleipena:

EBAZPENA, 2019ko abuztuaren 1ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena; honen bidez, 2019-2020rako antolatu den Hirigintzako XLV. (45) ikastaroa egiteko matrikula-bekak esleitzen dira. Ikastaroa Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendean dagoen LHIEE-Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU/LHIEE) antolatua da. EHAA 158, 2019ko abuztuaren 22a

EBAZPENA, 2019ko irailaren 20koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena. Honen bidez, 2019-2020rako antolatu den Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLV. (45) ikastaroa egiteko bi matrikula-beka esleitzen dira. Ikastaroa Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendean dagoen LHIEE Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU/ LHIEE) antolatua da. EHAA 191, 2019ko urriaren 8a

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen ditu Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroak. Urtero bezala, 2019-2020ko edizioan ere beka-deialdia egin da Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLV. (45) Ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko bost laguni. Matrikula-beka bakoitza 2.780,00 eurokoa da (ikastaro osoa ordaintzeko besteko kopurua). Guztira, 13.900 €

Xedea da baliabide ekonomiko nahikorik ez baina emaitza akademiko onak dituzten graduatuek ikastaroan parte hartuko dutela bermatzea.

Lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan lanean diharduten pertsoneri prestatzen eta birziklatzen laguntzea, hori da helburua.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Gauzatutako aurrekontua:

2019 urtean Gauzatutakoa			
Proposatutakoa	Aurrekontua Gauzatutakoa	%	Laguntzen Zkia
13.900€	13.900€	% 100	5

Lurralde-banaketa:

Lurralde Historikoa	2018
Alava	
Bizkaia	5
Gipuzkoa	
Guztira	5

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Matrikula beka kopurua	5	5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko

2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko ekainaren 18koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez erakunde edo enpresetako diruz lagundutako praktikak erregulatzen baitira eta haietan parte hartzeko deia egiten baitzaie Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLIV (44) Ikastaroa (2018-2019)» egiten duten ikasleei

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

EBAZPENA, 2019ko ekainaren 18koa: (EHA 121. zk., 2019ko ekainaren 18).

BAZPENA, 2019ko irailaren 12koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako XLIV. (44) Hirigintza Ikastaroan aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egitekoak diren diruz lagundutako praktikaldia» ikasleentzat esleitzen duena. (EHA 182. zk., 2019ko irailaren 25a).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen du Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroa, eta 2018-2019 ikasturtean erakundeetan eta/edo enpresetan 300 ordu inguruko praktika-aldia antolatu zuen hirigintza-arloan 48 hilabeteko eskarmentua baino gutxiago zutenentzat. Guztira, 22.000 euroko aurrekontu-zuzkidura erabili da (Gizarte Segurantzako gastuak barne). Laguntza bakoitza ez da sekula 2.222,22 eurotik gorakoa izango.

Hona praktika-aldiaren helburu nagusia: Hirigintzari buruzko ikastaroa (2018-2019) egin duten ikasleek hirigintzaz ikasitakoa erakunde publikoetan eta/edo enpresetan aplikatzea, han hiru hilabeteko praktikak eginez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Hala, harreman estuagoa lortzen da hirigintza- lurralde- eta ingurumen-arloetan langile espezializatuen beharra izan dezaketen zentro eta profesionalekin, baita erakunde publiko eta pribatuekin ere.

Ikasleek jarduera erdi-profesionala garatzen dute, eta aukera izaten dute erakunde publikoetan "in situ" ezagutzeko zertan den eta zelan kudeatzen den hirigintza. Horretarako, aholkularitza-lanetan ibiltzen dira eta proiektu profesional batean parte hartzen dute hiru bat hilabetez (2018ko urritik abendura arte). Horrek guztiak ondorio garrantzitsuak dauzka Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren hirigintzari



buruzko modulu bidezko ikastaroko ikasleentzat, praktika-aldia egin aurretik ez baitute eskarmenturik hirigintza-kontuetan.

Emaitzak onak izan dira. Izan ere, diruz lagundutako praktikak 9 ikaslek egingo zituztela aurreikusita bazegoen ere, azkenean, 6 ikaslek egin dituzte.

Gauzatutako aurrekontua:

Aurrekontua	Gauzatutakoa	%	laguntzak
22.000	14537,00€	66	6

Lurralde-banaketa:

Lurralde Historikoa	2019
Araba	
Bizkaia	5
Gipuzkoa	1
Guztira	6

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaiza</u>
Diru-laguntzen kopurua praktiketarako	9	6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2019-2020ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia

2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko ekainaren 4koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko 2019-2020ko aldirako bi dirulaguntza emateko merezimendu-lehiaketarako. (2019ko ekainaren 19ko EHAA).

3.-Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHA Ari Hiperesteka)

Araua eta deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/1902979a.pdf>

Emate-erabakia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902979e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen helburua da, Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai jakin batzuei buruzko ikerlanak egitea eta Euskadiko herri-administrazioen eraginkortasuna areagotzea. Ikerkuntza programa honek urtebeteko iraupena du.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019-2020 aldirako diru-laguntzen esleipenak balio izango du Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten ikerketa-arloak garatzeko.

Helburua zen bi diru-laguntzarako deia egitea eta horrela egin da (helburua bete da): biak ikerketa-taldeentzat dira. Laguntza biak bakarrik esleitu dira; abian dagoen deialdian, diru-laguntza jaso duten ikerketa-proiektuak honako esparru hauetan kokatzen dira:

- *Osasuna politika publiko guztietan kontuan hartzea.*
- *Inteligentzia artifiziala zergen arloan eta auzibideetarako prozeduretan.*

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ikerlanak 2020an aurkeztu behar dira eta orduan baloratuko dira. Beraz, deialdia bukatuta (2020an) ebaluatuko ditugu deialdi honetako helburuak eta adierazleak.

IVAPeko kalitatea kudeatzeko sistemaren helburu eta adierazleei dagokienez, honako datu horiek dauzkagu 2018-2019ko programa honetan, 2019an bukatuta:

Adierazlea	Aurreikusita	Lortutakoa
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan argitaratu diren ikerlanen ehunekoa	100%	0
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan aurkeztutako eskaeren ratioa	2	2,50
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan diru-laguntzei uko egingo ehunekoa	0%	0%
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan liburutegian gordetako ikerlanen ehunekoa	0%	100%



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako "Jesús María Leizaola 2019" saria

2.- Araua

2019ko maiatzaren 28ko Ebazpena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez «Jesús María Leizaola» 2019ko sarirako deialdia egiten baita. Sari hori zenbait ikerkuntza-ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako da, zeinek euskal autonomiarekin zerikusia baitute edo hura aztertzeko eta hartan sakontzeko baliagarriak izan baitaitezke (2019ko ekainaren 5eko EHAAAn argitaratuta).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

PROGRAMAREN ARAUA/DEIALDIA

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902710e.pdf>

EMATE-ERABAKIA

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/12/1905593e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

“Jesús María Leizaola” 2019 sariaren eginkizuna hauxe da: gure autonomia-sistemak dituen berezitasunei buruzko azterlanak sustatzea eta zabaltzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Sariak aukera ematen du gure sistema autonomikoak arlo juridikoan, ekonomikoan, historikoan, kulturean, finantzarioan eta beste arlo batzuetan dituen berezitasunei buruz egindako ikerketa-lanak zabaltzeko.

Halaber, ikerkuntzaren aldeko interesa sustatzeko egokia da aipatutako arlo horiek sakontzeko beharrianari erantzuten diolako eta etorkizuneko euskal autonomia garatzeko aproposa izan daitekeelako.

Aurtengo deialdian saria eta akzesita hutsik gelditu dira.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	2019	
	Helburua	Adierazlea
Leizaola saria deialdira aurkeztutako hautagaien kopurua	3	4
Leizaola saria ematea	1	0
Leizaola saria akzesita ematea	1	0
EAEtik eta Nafarroatik kanpo bizi diren Leizaola sariaren hautagaiak	-	1
Leizaola deialdian aurkeztutako lanak, saririk gabekoak baina argitaratuak	1	0
Leizaola saria deialdian ezarritakoarekin bat datozen aurkezturiko lanak	100%	50%



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak (toki administrazioa)

2.- Araua

AGINDUA, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko diru-laguntzen arauak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2005006237>

Ebazpenak:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/10/1904645a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/01/2000401a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Udal-administrazioak diruz laguntzea, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egonda eta partzialki edo guztiz liberatuta egonda, euren lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizuna eskuratu arte euskara-ikastaroetara joaten diren langileak ordezkatzeko kostua finantzatzuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko urtarrila-ekaina epealdia.

- Ordezkaturako ikasle kopurua: 1
- Erakundeak: 1
- Liberazio mota: osoa.
- Ordezkapenen kostua: 5.506,88 euro.

2019ko uztaila-abendua epealdia.

- Ordezkaturako ikasle kopurua: 1
- Erakundeak: 1
- Liberazio mota: osoa.
- Ordezkapenen kostua: 4.236,06 euro

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ordezkapenentarako diru-laguntza eskatu duten erakundeen kopurua (urte osoa)	10	2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 24koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazio eta foru-administrazioetako enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 30ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako aurrekontu-zuzkiduren esleipena arautzen duena.

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 3koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko erakunde autonomoen enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako aurrekontu-zuzkiduren esleipena arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902685e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza Programa honen helburua da ahal den erakunde publiko guztietan prestakuntza-plan edo -programen ezarpena sustatzea eta finkatzea. Bestalde, aurkeztutako prestakuntza-plan edo -programek analisi edo diagnostiko batean oinarritu beharko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten langileen prestakuntza etengabeko garapenean eta egokitzapenean dauden kalitatezko zerbitzu publiko batzuk eskaintzeko ezinbesteko elementutzat hartzeak, eta, bestetik, EAEko administrazio guztiek aurrean dituzten aurrekontu-zailtasunak aintzat hartzeak, horiexek bultzatzen gaituzte Diru-laguntza Programa hau abian jartzera.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
1. adierazlea: prestakuntza-planen kopurua	45	41
2. adierazlea: parte-hartzaileen kopurua	70.000	82.687
3. adierazlea: programan parte hartzen duten erakundeen kopurua	175	154